BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

543

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 16koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2010-2011 ikasturteko Karmele Alzueta Hezkuntza Berriztapen Sariaren deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez (2011ko irailaren 1eko EHAA), 2010-2011 ikasturteko Karmele Alzueta Hezkuntza Berriztapen Sarirako dei egiten zuen.

Deialdi horren xedea 2010-2011 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Hastapena eta Batxilergoko ikastetxeetan garatutako Hezkuntza Berriztapen proiektuei Karmele Alzueta saria ematea da.

Aipatutako aginduaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Karmele Alzueta saria eta ohorezko aipamena Hezkuntzako sailburuordeak emango ditu, Hautaketa-batzorde baten proposamenez.

Hautaketa-batzorde hori Hezkuntzako sailburuordeak osatu zuen 2011ko abenduaren 13an, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak proposaturik.

Batzorde hori 2011ko abenduaren 15ean bildu ondoren eta bilkura horretako akta jasota (hor deialdian aurkeztutako ikastetxe guztien puntuazioa eta sarien proposamena azaltzen da), hauze

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Lekeitioko CEIP Lekeitio HLHI ikastetxeari Hezkuntza Berriztapeneko proiektu hoberenagatik Karmele Alzueta saria ematea, «XXI. mendeko eskola inklusiboak izen propioa du: Ikas Komunitatea» proiektuagatik. Sariaren diru-kopurua 15.000 eurokoa da.

2. artikulua.– Vitoria-Gasteizko CPEIPS Niño Jesús HLBHIP ikastetxeari Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan Ohorezko Aipamena ematea, «Berriztapen eremuak: «Con los cinco sentidos» proiektuagatik. Sariaren diru-kopurua 1.500 eurokoa da.

3. artikulua.– Vitoria-Gasteizko CPEIPS Carmelitas-Sagrado Corazón HLBHIP ikastetxeari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Hastapena eta Batxilergo etapetan Ohorezko Aipamena ematea, «Gunex (Gune experience)» proiektuagatik. Sariaren diru-kopurua 1.500 eurokoa da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 16a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.